

**Konpromiso berria tokiko produktuen aldeko apustuaren barruan**

**EROSKI-K ETA ABRA-K HITZARMEN BAT SINATU DUTE ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAK SUSTATZEKO**

- Kooperatibak Arabako Errioxan ekoiztako ardoak sustatzeko konpromisoa hartu du, eskualdeko, udalerriko eta lursaileko ardoetarako etiketetan finkatu diren zehaztapen berrien babesean.
- Gaur, EROSKI Arabako produktuak babesteko ekitaldi bat egin du, eta bertan, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako diputatuak eta Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Politikako zuzendariak hartu dute parte.
- Azken urtean, EROSKI 10 milioi euro baino gehiago bideratu ditu Arabako ardo, lekaleak eta patata erostrera.

Gasteiz, 2017ko azaroaren 10a.- [EROSKI](#) eta [Arabako Errioxako Upeltegien Elkarteak](#) (ABRA) Arabako Errioxako ardoak garatu eta sustatzeko hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean, Gasteizko El Boulevardeko EROSKI hipermerkatuan.

ABRA elkartean, gaur egun, Errioxako Arabako 126 upeltegi daude, eta haien ekoizpena hogeita hamar litro ardo baino gehiagokoa da urtean. EROSKI eta ABRAK sinatu duten hitzarmena kooperatibak inguruko produktuak merkaturatzeko konpromisoaren barruan dago, horren eraginez lehen mailako sektorearen iraunkortasunak gora egiten baitu, eta ekoizpen-ehuna askotarikoa izaten jarraitzeko lagungarri baita. Hitzarmen horren arabera, eta sektorearen egonkortasunerako konpromiso moduan, EROSKI argi identifikatuko du Arabako Errioxako eskualdeko ardoen jatorri-deitura kalifikatua (DOC), eta udalerraren edo lursailaren deitura ere ipiniko du, etiketan agertzen bada behintzat. Eta gainera, kooperatibak produktu horien aukera zabalduko du dendetan.

*"Hitzarmenaren bidez, Errioxako jatorri-deiturari buruzko araudi berriaren zati bat nabarmendu nahi dugu. Horren arabera, Errioxako Arabako eskualdearen etiketan udalerrria edo lursaila ere adieraz daitezke. Hartara, kalitatezko produktu hori erraz ezagutzeko aukera dago, eta jatorri-deitura duten produktuen artean bereizten da. Helburua gure ekoizpen-ehunak askotarikoa izaten jarraitzea da, eta aldi berean, kalitatezko produktuak eskaintzea kontsumitzaileei",* esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Bestalde, ABRAko presidente Gabriel Frías del Valek adierazi du *"EROSKIrekin hitzarmen hau sinatzea lehen urrats garrantzitsu bat izan da guretzat, eta aurrerapauso handia elkartearen helburu nagusia betetzeko. ABRAren ekintza dinamikoa, zabala eta etengabea da, eta horregatik gaur egun ezinbestekoa da Arabako Errioxan"*.

### **Tokiko eta sasoiko produktuen kanpaina berria**

Bi erakundeek El Boulevard merkataritza-zentroko EROSKI hipermerkatuan sinatu dute lankidetzeta-hitzarmena, Arabako sasoiko produktuak sustatzeko kanpaina berriaren aurkezpenean, hain zuzen; zehatz-mehatz, Arabako lekaleak, patata eta ardoa. Azken urtean, EROSKIk 10 milioi euro bideratu ditu Arabako hiru produktu horiek erostera. Tokiko kanpaina horren aurkezpenean, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako diputatu Eduardo Aguinacok eta Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Politikako zuzendari Peli Manterolak hartu dute parte.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako diputatuak, Eduardo Aguinacok, hitz egin duenean, nabarmendu du *"ardoa tradizio luzeko gure produktu bat dela, eta gainera, Arabako Errioxakoa kalitate handikoa da. Hortaz, ekoizleek eta EROSKIren muntako enpresa batek hitzarmen baten bidez bat egitea lagungarri izango da herritarrek ardo horiek hobeto ezagutzeko, eta gainera, askoz kontsumitzaile gehiagoren eskura egongo dira"*.

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Politikako zuzendariak, Peli Manterolak, gogora ekarri du *"agertoki berria sortu dela Errioxako jatorri-deitura kalifikaturako, eta oraingo baldintzak aproposak dira produktua benetan eta modu adostuan desberdintzeko. Eusko Jaurlaritzaren ustez, orain aukera dago Arabako ardoak sendotzeko eta haien posizionamendua eta desberdintzea hobetzeko"*.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)